

Antzinako Musikaren Asteko hiru kontzertu izango dira katedralean

43 urte dira Antzinako Musikaren Astea lehen aldiz ospatu zenetik, eta oraingoan ere katedrala du egoitza. Hain zuzen ere, hiru kontzertu izango dira irailaren 17, 19 eta 20an eta Espainian tradizio eta nazioarteko proiektu handiena duen antzinako musikaren ekitaldi honen programazioaz gozatu ahal izango dugu.

Asteazkenean, hilak 17, arratsaldeko 19:30etan, **Jesus Guridi Kontserbatorioko ikasleen kontzertua** eskainiko da, Vivaldi, Scarlatti, Haendel, Correa de Arauxo, Corrette edo Corretteren piezez osatutako egitaraua aurkeztuz. Prezioa: 0 €. Sarrera [gonbidapenarekin](#).



Jone Martínez

Ostiralean, hilak 19, 20:00etan, Jone Martínez sopranoa eta XVII eta XVIII. mendeetako musikan espezializatutako Il Fervore talde historizistaren txanda izango da. Gioie e diletti: Música para Felipe V durante su estancia en Nápoles (1702) programa eskainiko dute. Prezioa: 0 €. Sarrera [gonbidapenarekin](#).



Grupo Il Fervore



Larunbatean, hilak 20, Forma Antiqua taldeak kontzertua eskainiko du 20:00etan, Galiziako, Asturiasko, Kantabriako, Irlandako edo Eskoziako doinu tradizionalak eta Händelen partiturak entzungo dira, besteak beste. **Sarreraren salmenta:** 9 €, orokorra. 4,5 €, murriztua.



Forma Antiqua

Informazio gehiago Arabako Antzinako Musika Astearen webgunean: ama-sma.kulturaraba.eus



IMANOL ITUIÑOREN MAGIAZ BETEKO DA ELIZPEA

Magialadia Nazioarteko Magia Jaialdiaren 37. edizioaren eskutik, Gasteiz magikoa bihurtuko da berriro irailaren 13tik 21era bitartean hiriko hainbat gunetan egingo den jaialdiari esker. Horien artean, Santa Maria elizpea, Imanol Ituiñoren "El mago en la botella y otras historias de magia" ikuskizunarekin. **Irailaren 15ean eta 16an** izango da, 20:00etan. Sarrera librea gonbidapenarekin. Gonbidapenak 19:00etatik aurrera emango dira elizpean. Informazio gehiago magialdia.com webgunean.

MUSIKAZ ETA ESKER ONEZ BETETAKO 25 URTEKO OSPAKIZUNA

Hilabete hauek oso bereziak izaten ari dira guretzat. Fundazioaren 25 urteko ibilbidean zehar talde handi batekin lan egin dugu, Santa Maria Gasteizko ondare, kultura eta turismo erreferente handia izan dadin -erlijio izaera galdu gabe-, jarraitu beharreko eredu bihurtu den zaharberritze prozesu bati esker.

Uztailan eta abuztuan, Santa Mariak eta katedralaren kanpoaldeek hainbat kontzertu hartu dituzte eta herritar guztiei eskerrak eman nahi izan genizkien "Obretan eta irekita" proiektua arrakastatsua izan dadin egindako ekarpenagatik. Ziur gaude proiektu horrek aurrera egingo duela etorkizunean ere. Horrela, Carlos Mena kontratenorraren eta Daniel Oyarzabal organistaren gaudiak barnealdean (uztailak 20) eta "Kontzertuan eta irekita" Santa Maria plazako kontzertuak dira eskerrak emateko modurik onena.



Musika, genero guztietan, gure agenda kulturalaren parte da, eta oraingo honetan "Kontzertuan eta irekita" elizpetik ateratzea nahi izan genuen, mundu guztiari zabaltzeko. Entzuleek oso modu positiboan erantzun zuten plaza betez eta Anne Etxegoyenek eta Baionako Aizkoa abesbatzak (uztailak 25), Miguelichi Lópezek (uztailak 26) eta Sole Gimenezek (abuztuak 2) eskainitako gaudiiez gozatu zuten. Eskerrik asko zuen laguntzagatik, etorkizun handia duen proiektu ilusionagarri batekin jarraitzeko balio digulako.

ANDRE MARIA ZURIAREN KOFRADIAK "ECOS DE LA LUZ" KONTZERTUA AURKEZTUKO DU SANTA MARIAN

Gasteizko Udal Musika Bandak eta Manuel Iradier Abesbatzak euren musika eta ahotsak batuko dituzte "Ecos de luz / Argi-Oihartzunak" Farolen Museoaren 25. urteurrena ospatzeko Santa Maria Katedralak hartuko duen kontzertuan.

Oraingoan bi saio izango dira, urriaren 2an eta 3an, 19:30etan, erreperitorio berarekin. Johan de Meij, Vangelis, Guridi, Aramburu eta Jenkinsen abestiak entzungo dira. Egitarauan Udal Bandak lehen aldiz interpretatuko duen Tomas San Miguel gasteiztarraren "Olatuak" lana nabarmentzen da.

Gonbidapenak irailaren 22tik aurrera egongo dira eskuragarri kofradiakideentzat Farolen Museoan (Zapatari kalea, 35) eta 29tik aurrera publiko orokorarentzat.

Fundatzaileen Zirkuluko bazkideek sarrerak erreserbatzeko aukera dute (eskaeraren arabera) 945 255 135 telefonora deituta irailaren 25a baino lehen.



"LOS PILARES DE LA TIERRA, EL MUSICAL-AREN" ALBA CUARTERO ETA RODRIGO BLANCO, SANTA MARIAN

Ken Folletten sagan oinarritutako musikalaren zati batek katedrala bisitatu zuen abuztuaren erdialdean. Idazleak tenpluarekin duen lotura dela eta, biak Santa Mariara hurbildu ziren 800 urtetik gorako eraikin batek gordetzen dituen "sekretoak" ezagutzera.